

17/09 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Mari Tere Ojanguren
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko irailaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko ikastetxe publikoetan 2017-18 ikasturterako maisu-maistren LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, 9 xedapen gehigarri eta 7 eranskin ditu.

1. artikulua I.etik VII.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

2. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta 3. artikulua lanpostu zerrenden hornikuntza-sistema zein izango den ezartzen du.

Lehenengotik zazpigarrenerako xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte. Zortzigarren xedapen gehigarriak Lehen Hezkuntzako aholkulari-postua eskuratzeko baldintzak jasotzen ditu. Bederatzigarren xedapen gehigarriak zehazten du postu guztietarako behar dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik epai irmoz kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babeserako Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak esaten du noiz sartuko den Dekretua indarrean.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu proiektu honetan lantzen diren Maisu-maistren Kidegoko lanpostu zerrendek (LPZ) eragina dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzako (HHE) ikastetxeetan, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan eta patronatu gisa izendatutako hezkuntza bereziko ikastetxeetan eta Lurralde Ordezkaritzetan. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren LPZ sartuta dago irizpen pean jarri den dekretuan, zeinak Bigarren Hezkuntzako Kidegoen LPZ jasotzen baitu.

LPZ hauetako plaza kopurua iazkoaren berdina da (9.927). Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 18 plaza gehiago daude, HHE ikastetxeetan 12 gutxiago, eta UHEIn 1 gutxiago. Gainerakoak bere horretan mantendu dira.

Erljio katolikoko (151) eta erlijio islamikoko (2) maisu-maistren plaza kopurua iazkoen berdina da. Plaza horiek ez dira plaza osoak, langile osagarrien taulan ageri den bezala.

Poltsa-Ordezkaritza ikastetxeetako lanpostuak ibiltariak dira edo hainbat ikastetxeren artean partekatuak. Lanpostu horietako maisu-maistrak ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita, baizik eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzari atxikitako plazak dira, eta ordezkari horiek esleitzen dizkiete beren zereginak eta ikastetxeak. Horien artean daude eskolaz kanpoko jarduerak egiteko irakasleak, logopedak, jangelako arduradunak, hizkuntza indargarriko irakasleak, kulturartekotasunekoak, Hezkuntza Marko Hirueleduna garatzen dutenak, e.a.

LPZ organikoetako maisu-maistren plazak, jomuga motaren arabera. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	<i>2016-17</i>	<i>2017-18</i>	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak	8.880	8.898	18
Erljio katolikoko irakasle postuak	151	151	0
Erljio islamikoko irakasle postuak	2	2	0
HHE ikastetxeetako postuak	410	398	-12
UHEI	10	9	-1
Patronatuak	19	19	0
Lurralde Ordezkaritzetako postuak	455	450	-5
LPZ organikoa guztira	9.927	9.927	0

Espezialitateei dagokienez, Haur Hezkuntzakoak (-32) murriztu dira gehien, aldiz, Lehen Hezkuntzakoak (36), Pedagogia Terapeutikokoak (19), eta Entzumen eta lengoiakoak (8) ugaritu egin dira. Gainerako aldaketak oso txikiak dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	2016-17	2017-18	Δ Azken
Haur Hezkuntza	2.537	2.505	-32
Lehen Hezkuntza	3.460	3.496	36
Euskara	16	16	0
Ingelesa	599	593	-6
Gorputz Hezkuntza	370	365	-5
Musika	295	294	-1
Aholkularia	294	295	1
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	603	622	19
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	134	142	8
Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak (CPC)	572	570	-2
LPZ organikoa guztira	8.880	8.898	18

“Ikastetxeak konfiguratu beharreko postu” gisa tipifikatutako en edukiak ikasturtez ikasturte aldatu daitezke ikastetxe bakoitzeko premien arabera, betiere Administrazioak behar bezala justifikatzen baditu. Izaera aldakor horren ondorioz, ezin dira behin betiko hornitu lehiaketa arrunt baten bidez.

Plantilla organikoen *euskalduntzeari* bagagozkio, HE2 duen irakasle portzentajea %98,2koa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta %63,3koa HHEko irakasleen artean. Horrek esan nahi du hazkundera %6,7koa izan dela aurreko ikasturtetik. UHEIko lanpostu guztiek, salbu batek, dute esleituta HE2 eskakizuna (%90), Patronatuen lanpostuen kasuan %53k, erlijio katolikoko irakasleen lanpostuetan %94,7k eta ordezkarietzako postuetan %82,2k.

Maisu-maistren kidegoko plantilla organikoetan HE2 esleituta duten plazen portzentajea, ikastetxe edo jomuga motaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

		2016-17	2017-18	Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntza	2HErekin	8.692	8.739	47
	Guztira	8.880	8.898	18
	2HE	97,9%	98,2%	%0,3
HHE	2HErekin	232	252	20
	Guztira	410	398	-7
	2HE	56,6	63,3	%6,7

Lurralde Ordezkaritzetan kokatutako 450 plazak ikastetxeetako *plantilla osagarriko* 870 postuen barruan daude. Izan ere, plaza horiek berez ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita modu iraunkorrean.

Normalean plazaren beraren izaeratik gertatzen da hori, halako plazak ikasleen ezaugarrien arabera egoten baitira eta, beraz, plaza aldakorak dira. Bigarren arrazoi bat ere bada, plazaren partzelazioa hain zuzen. Sarritan plaza erdi bat edo plazaren herena esleitzen zaio ikastetxe bati, eta egoera horretan daude hain zuzen plantilla osagarrian sartzen diren 61 PTE plazak.

Erljioko plazaren kasuan, oro har osatu gabeko plazak direnez, ez dira sartzen plantilla osagarriaren batuketan, ez eta ratioen kalkuluan.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla osagarriko plazaren banakatzeara 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetan

	<i>Plaza mota</i>	<i>2016-17</i>	<i>2017-18</i>	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
1. taldea	Hezkuntza marko hirueleduna (HMH)	20	29,5	9,5
	Eskolaz kanpokoak	96	78,5	-17,5
	Jangela - poltsa	4	2,5	-1,5
	Jangela - ikastetxea	213	218	5
	Zuzendaritzako laguntzaileak (kronikoak)	9	16	7
	Kulturartekotasuna	3	4,5	1,5
	Hizkuntza indargarrirako irakasleak (HII)	129	153	24
2. taldea	PTE	48	61	13
	2. taldeko beste batzuk	294	307	13
Plantilla osagarria guztira		816	870	54
	Erljio katolikoa*	80	77	-3

Ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantilla osoak 9.768 maisu-maistra barne hartzen ditu, aurreko ikasturtean baino 72 gehiago.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantillaren bilakaera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

	<i>2016-17</i>	<i>2017-18</i>	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
LPZ organikoa	8.880	8.898	18
Plantilla osagarria	816	870	54
Funtzionamenduko LPZ	9.696	9.768	72

Alderatzen baditugu plantilla eta ikastetxe horietan matrikulatu den ikasle kopuruaren hazkundera (aurreko ikasturtean baino 249 gutxiago), ondorioztatu daiteke ikasgelako irakasle ratioa (1,7), ikasgelako ikasle ratioa (18,7) eta irakasleko ikasle ratioa (11,04) apur bat hobetu direla aurreko ikasturtearekiko.

Ikasle, irakasle eta unitateen eta horiei dagozkien ratioen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetan.

		2016-17	2017-18	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre- matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	645	632	-13	-%2,02
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.688	1676	-12	-%0,71
	Lehen Hezkuntza	3.394	3.438	44	%1,30
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	33	34	1	%3,03
	Unitateak guztira	5.760	5.780	20	%0,35
Ikasleak (aurre- matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	9.004	8.908	-96	-%1,07
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	31.634	30.767	-867	-%2,74
	Lehen Hezkuntza	67.315	68.029	714	%1,06
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	141	141	0	%0,00
	Ikasleak guztira	108.094	107.845	-249	-%0,23
Irakasleak: funtzionamendu plantilla		9.696	9.768	72	%0,7
Irakasle / ikasgela ratioa		1,68	1,69		0,01
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		18,77	18,66		-0,11
Ikasle / irakasle ratioa		11,15	11,04		-0,11

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgelako ikasle ratioa gehienez 23,7koa da, eta ratio hori Lehen Hezkuntzako ratio handienaren (25), Haur Hezkuntzako 2. zikloko ratioaren (23) eta 2 urteko mailaren (18) arteko batez bestekoaren emaitza da.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla organikoak 18 plaza gehiago dituela, eta HHEko maisu-maistrak berriz 12 gutxiago direla.

Ikusten da plantilla osagarria handitu egin dela, ondorioz, behin-behinekotasuna ere bai. Zentzu horretan, berriro dakargu gogora Kontseiluak 13-15 Irizpenean onartu zuen proposamena, zeinaren bidez eskatu baitzion Hezkuntza Sailari txosten bat egin zezala aztertzeko zeintzuk diren behin-behinekotasunaren arrazoiak eta ba ote dagoen premiarik irakasle berriak sartzeko sisteman. Orobat eskatu zitzaion proposamenak eta konponbideak bila zitzala egonkortasuna hobetzeko eta irakasleen erreleboa planifikatzeko.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, aurtan 72 plaza gehiago daude, eta aurre-matrikulan berriz 249 ikasle gutxiago daude. Beraz, iazko ratioak mantenduko dira.

Kontseiluak ikusi du Hezkuntza Sailak, oro har, mantendu egin dituela ratioak; hala ere, Kontseiluak bere irizpenetan adierazi duen bezala, ratio horiek aldatu egiten dira zonaldeen arabera. Horregatik proposatu du baliabideak esleitzean kontuan har daitezela profil sozioekonomiko baxuena duten ikastetxeak, horrela jatorriko defizitak konpentsatzeko eta curriculumeko gaitasunen garapen-maila bera erdiesteko ikasle guztientzat.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko irailaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA